

Arartekoaren 2014R-104-14 ebazpena, 2014ko azaroaren 11koa. Horren bidez, Bermeoko Udalari gomendatzen zaio baliorik gabe utz dezala trafiko isun bat, euskara hutsean seinaleztatuta zegoen aparkatzeko debeku bat ez betetzeagatik jarritakoa.

Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekora jo zuen, Bermeoko Udalak bere amari ezarri zion isun batengatik kexa egiteko. Isuna Udaltzaingoak 2013ko uztailaren 23an jarritako salaketa bat zela medio ipini zioten, aparkatzeko murrizketa bat bete ez zuelako. Murrizketa hura asteko egun bateko ordu-tarte jakin baterako ezarrita zegoen (1228/2013 zenbakiko zigor-prozedura).

Herritar horrek adierazi zuenez, murrizketa hura iragartzen zuten seinaleak ez zeuden behar bezain argi, eta euskara hutsean idatzita zeuden, bizkaieraz. Horrek galarazi egin omen zion seinaleak zer esan nahi zuen jakitea eta, horrez gain, seinaleak ez omen zituen betetzen trafiko eta bide-segurtasun arloko indarreko araudiak beroriek homologatzeko exijitzen dituen baldintzak. Beraz, seinale horietan agindutakoa ez betetzeak ezin omen zuen berekin ekarri araudi horretan xedatutako isuna.

2. Kexa bideratzeko onartu eta aztertu ondoren, Bermeoko Udalarekin harremanetan jarri ginen, kexagileak aipatutako seinaleek hitzez hitz zer zioten adieraz ziezagun. Era berean, zigor-espediterearen kopia bat bidaltzeko eskatu genion, eta adieraz ziezagula Bermeon zer irizpide dauden indarrean trafiko arloan errotulatzeko eta seinaleztatzeke erabilitako hizkuntzari buruz.
3. Errekerimendu bat jaso eta gero, udalak espediente osoa bidali zion Arartekoari, seinaleen argazki-erreportajea eta guzti, baita txosten bat ere, hizkuntza-paisaiaren arloan udalerrri horretan onartu diren xedapenen gainekoa. Idazki bat ere igorri zuen, non adierazi baitzuen trafiko seinaleak nazioartekoak izanik, seinalearen behealdeko idazkuna euskaraz idatzita egon arren, ez zegoela dudarik aparkatzeko debekua zela eta, hortaz, testua ez ulertuta ere, aparkatzeko ekintzak manu hura urratzea zekarrela berekin.
4. Kexa honetan azaldutako arazoari ez ezik, antzeko arrazoiengatik egin litezkeen beste hainbati ere heltzeko asmoz, harremanetan jarri ginen, orobat, Udalaren Euskara Batzordeko zinegotzi ordezkari eta batzordeburuarekin. Ondoren, beste idazki bat bidali genion udalari. Bertan, zenbait irizpide helarazi genizkion, kasu





zehatz honetatik harago, arlo honetako udal politikak balioesterakoan gure ustez kontuan hartu beharrekoak, eta bere jardueran irizpide horiek aintzat hartzeko prest ote zegoen jakinaraz ziezagun eskatu genion. Errepikapenak ekiditeko, "Gogoetak" atalean aipatuko ditugu irizpide horiek.

Irizpide haietako bat hauxe zen: udalak hizkuntza-paisaiaren arloan legitimoki onartutako politikak gorabehera, isun horrek ez zeukala, gure ustez, araudiaren babesik eta, hortaz, baliorik gabe utzi behar zela.

5. Udalak 2014ko urriaren 13ko idazkiaren bitartez erantzun zion Arartekoari. Honatx zer dioen isun horren gainean: *"...ez dogu aurreikusten mota honetako isunak ipini diran kasu danatan atzera egitea, isunak baliogabetu eta isunen zenbatekoa itzultzea. Hori horrela, ezinezkoa egiten jasku kasu honetan isuna baliogabetzea, berdintasun printzipioaren kontra joango litzakelako".*

Erantzun hori jaso ostean, Arartekoak bere jarduera bukatzea erabaki du, ebazpen hau emanaz. Honako gogoeta hauetan oinarritzen da ebazpena:

Gogoetak

1. Indarreko legeria funtsezko erreferentzia da, dudarik gabe, espediente honetan azaldutakoa bezalako gaiak tratatzeko orduan. Bestalde, ez da ahaztu behar hizkuntza-politikaren arloan botere publikoek neurriak hartu behar dituztela euskararen eta gaztelaniaren ofizialkidetasunak berekin dakartzan eskubideak bete daitezen; gainera, neurri horiek herritarrei nola eragin diezaieketen kontuan hartuta, batez ere inguru sozio-linguistiko jakin batzuetan, argi dago beti modu inklusiboan lan egin behar dela, neurri horien onarpena, araudiarekin bat etortzean ez ezik, funtsezko gizarte-adostasunean ere oinarritu dadin.

Horregatik, Arartekoak Bermeoko Udalarekin partekatutako gogoeta moduan aztertu nahi izan du kasu hau, eta horretan lagundu digu udalak eskaini digun lankidetzak, izan ere, informazio osoa bidaltzeaz gain, laguntzeko prest agertu da Euskara Batzordeko zinegotzi ordezkari eta batzordeburua, erakunde honekin eztabaidatzea onartu baitu, zintotasunez eta gardentasunez, azaldu genizkion gai guztiak. Bidezkoa da laguntzeko jarrera hori aitortu eta eskertzea, zigortzeko ebazpena ez dela baliogabetu alde batera utzita.

Era berean, Bermeon zenbait irizpide ezarri dira udalak erabili eta sustatu nahi duen hizkuntzari buruz. Irizpideok ezartzean, Euskarako udal Sailak igorritako txostenean adierazitako moduan, udal administrazioak zuzenbidearen arabera baliatu ditu, guk uste, bere jardueraren esparru horretan berezkoak dituen eskumenak. Bestalde, ados gaude udalak, bere jarduera testuinguruan kokatzeko orduan, txostenean nahiz arloko zinegotzi ordezkariak helarazi zigun hausnarketan aipatutako gogoeta sozio-linguistikoekin.

2. Nolanahi ere, azaldutako gaia zuzenbidearen ikuspuntutik aztertzerakoan, gogoan izan behar dira bai legezketasun arrunteko gaiak, bai gure autonomia erkidegoan hizkuntza ofizialen erabilera erregulatzen duen araudia ere.

Gure Autonomia Erkidegoan hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruzko arauak irakurrita, hasiera batean pentsa dezakegu botere publikoen jarduerak, elebidunak ez badira, ez datozela bat arauetan idatzita dagoenarekin. Arau horietako bat Euskeraren Erabilera Arauzkotezko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 8.2. artikulua da eta honela dio: *“Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteez esku hartzen duten egintza guztiak eta baita administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak ere bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute, salbu eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzen badute”*.

Jakina, horrelako xedapenak ezin ditugu alde batera utzi, baina, gure ustez, euskaraz egiten den lekuetan xedapen horien interpretazioa malgutu egin behar da bi hizkuntzak batera erabiltzeari dagokionez. Izan ere, herrietan dauka euskarak bizitasunik handiena, eta etorkizunean are gehiago erabil daiteke benetako hizkuntza gisa, gaztelaniarekin batera joan beharrik izan gabe, baina, era berean, gaztelania erabili nahi duten pertsonak baztertu edo diskriminatu gabe.

Hausnarketa horrek pentsarazten digu arau hori ez dela nahikoa, berez, azaldutako gaia konpontzeko, bi arazoirengatik: batetik, arau horretan orokorrean aipatzen delako udalaren jarduera, eta ez soil-soilik udalaren egintzak, jakinarazpenak edo komunikazioak; bestetik, gehiegizkoa dirudielako arauak *“egintza guztiak”* dioenean, jardueraren adierazpen guztiak bere baitan hartzea, bestela ez bailitzateke beharrezkoa izango *“administrazioaren jakinarazpenak eta adierazpenak”* aipatzea.

Gure aburuz, kontuan hartu behar da, orobat, udal batek euskara bakarrik erabiltzea erabakitzen badu, hautu hori ez dela apetaren arabera izaten, izan ere, euskaldun asko dauden udalerrietan euskara bakarrik erabiltzea erabakiz gero, euskara komunikaziorako benetako tresna bihurtu daiteke. Beraz, ikuspegi formal hutsean gelditu gabe –ikuspegi horrek pentsaraziko luke desadostasunak konpontzeko nahikoa dela bi hizkuntza ofizialak jardueraz guztietan mimitikoki islatzea–, harago joan behar dugula iruditzen zaigu, eta gaia ikuspegi materialetik ere aztertu behar dugula –hau da, hizkuntzak komunikazio tresna gisa duen eginkizuna–.

Ikuspuntu horretatik begiratuta, hauxe aztertu behar dugu: kexan aipatutako seinale zehatz hori ulertzeko ahalmena baldintzatuta edo indargabetuta egon daitekeen gaztelania erabili ez delako. Kasu horretan bakarrik ondorioztatu ahal izango litzateke babesgabetasuna sortu zela isunaren ondorioetarako eta hizkuntzagatik bereizkeria egin zela euskararik ez dakiten gaztelaniazko hiztunekin. Funtsean, Konstituzio Auzitegiak 10/1982 Legeaz emandako doktrina ezartzea da. Doktrina horren arabera, *“botere publikoek beren ekimenez edo interesdunek hala eskatuta erabil dezakete ofizialak diren bi hizkuntzetatik bakarra, hala araututa baldin badago eta erabilitako hizkuntza ez dakiela alega dezakeen interesdunen baten eskubideak kaltetzen ez badira”* (Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 Epaia, ekainaren 26koa, 9. oinarria).

3. Hori guztia gorabehera, 10/1982 Legearen 10.2 artikulua honela dio aztertzen ari garen arloa –trafiko seinaleak- aipatzean: *“Kale-bideetan jarritako bide-seinale eta mezuak bi hizkuntzetan idatzita egongo dira, beti ere nazioarteko arauak errespetatuz eta erabiltzaileentzako ulergarritasun- eta segurtasun-eskakizunak betez”*.

Gogoan izan behar da, beste alde batetik, udalak berak baliatzen duen trafikoko araudia. Espedientetik ondorioztatzen denez, bi arazoibide azaltzen ditu bere zigor-ebazpena oinarritzeko:

- Aparkatzeko debekua edo murrizketa adierazten duten seinaleak, jakina denez, bide-erabiltzaileek obeditu behar dituztenen artean sartuta daude, arau-hauste administratibo baten ondoriozko zigorra jaso nahi ez badute behintzat, azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak 154. artikuluan ezarritakoaren arabera (horren bidez onartu zen Zirkulazioko Araudi Orokorra).



- Kasu honetan obeditu ez den agindu hori seinale homologatu batean adierazita zegoen.

Orduan, nahitaez kontuan hartu beharra dago araudi horrexek zer ezartzen duen seinale batek, azaldutako ondorioetarako "homologatutzat" jo dadin, izan behar dituen ezaugarriez. Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintza Dekretuaren bidez onartu zen Trafikoko Legeak hauxe ezartzen du 56. artikuluan: seinaleetako ohar idatziak gutxienez gaztelaniaz adieraziko direla. Zirkulazioko Araudi Orokorren 138. artikulua, bere aldetik, zera ezartzen du: herri-bideetako seinaleztatze-paneletan edo haiekin batera agertzen diren ohar idatziak, baita idazkunak ere, gaztelaniaz agertuko direla eta, horrez gain, kasuan kasuko autonomia-estatutuan onartutako autonomia erkidegoko hizkuntza ofizialean, baldin eta seinalea erkidego horretako lurraldean kokatuta badago.

Behin puntu honetara iritsita, alderdi faktiko bat gogorarazi behar dugu. Alegia, espedientetik ondorioztatzen denez, seinalean adierazita zegoen aparkatzeko murrizketaren edukia bere bi elementu hauen bateratzeak finkatzen zuen: alde batetik, "ez aparkatzeko" nazioarteko zeinua; bestetik, bizkaieraz idatzitako testu bat, debeku hori asteko egun bateko ordu-tarte jakin batera mugatzen zuena. Agerikoa dirudi idazkun hura –seinaleak helarazten zuen aginduaren osagai erabakigarria- euskara hutsean idatzita bazegoen, seinale hark ez zituela betetzen araudi horren argitan exijitutako baldintzak. Beraz, ezin da homologatutzat hartu, seinalean agindutakoa urratzeak araudi horrexetan xedatutako zigorra berekin ekar dezan. Orduan, bidezkoa da udalari isun hori baliogabetu dezan eskatzea.

4. Bere azken idazkian, udalak berdintasunaren printzipioa baino ez du erabiltzen eskaera hori ez betetzeko. Egokia da Arartekoarekin iritziak kontrastatu ondoren, isunari eusteko erabakia jada ez oinarritzea udalak bere lehen idazkian bere burua justifikatzeko baliatu zituen argudioetan, bada erakunde honek adierazi zion, zuzenbideari jarraiki, ezin zela argudio haiekin ados egon. Alabaina, udalak arrazoi horregatik hasi eta isuna ezarriz ebatzi zituen gainontzeko zigor-espedienteak berraztertze asmorik ez badu ere, horrek ez du eragotzi behar, ikuspegi juridikotik begiratuta, araudiaren beharrezko babesik ez duen isun bat baliorik gabe uztea, kexa honetan agerian jarri den bezala. Bestela, aipatutako printzipio horrek nahi gabeko eta zuzenbidearen kontrako ondorioa sortuko luke: legezkontrakotasunean berdintzea; izan ere, eragotzi egingo luke hainbat egintza baliogabetzea, baldin eta egintza horiek, legezko euskarririk ez edukita ere, aurrekaririk izango balute eta



administrazioak, arrazoi bategatik edo bestegatik, aurrekari horiek berraztertze aukera aintzat hartuko ez balu.

Dena den, berrazterketa hori bat etorriko litzateke, edonola ere, orain arte azaldu dugun azterketarekin, eta hala jardun beharko litzateke, betiere azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VII. tituluko I. kapituluak horretarako xedatzen dituen baldintzak beteko balira.

5. Azaldutako horretatik guztitik bi ondorio atera daitezke, guk uste. Alde batetik, Bermeoko Udalak arduraz lagundu duela espediente hau bideratzen: behar bezala azaldu du bere jardura Euskararen Erabilerarako bere Udal Planean ezarritako politika publikoen esparruan, eta erakunde honek proposatu zion bezala, hizkuntza ofizialkidetasunaren ondorioz herritarrek dituzten eskubideen argitan heldu dio jardura horren egokitasunari; beste alde batetik, eskubide horiek herri-administrazio orotan sortzen dituzten betebeharrak kontuan hartuta, kexa hau eragin duen isunak ez daukala legezko oinarririk; horregatik, gomendio hau egiten diogu Bermeoko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoari jarraiki:

GOMENDIOA

Baliorik gabe utz dezala aparkatzeko debekua edo murrizketa adierazten zuen seinale bat ez obeditzeagatik 1228/2013 zenbakiko prozeduran jarri zuen isuna.